

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2 MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi ariketak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmena eta idazmena egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	---	20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min. inguru
	Irakurmena eta idazmena	---	50 puntu	1h 45min.
	Entzumena	---	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2005eko maiatza**

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan emandako albistea entzungo duzu. Bertan, Mutrikuko institutuan zabaldu berri diren Akuakultura ikasketei buruzko informazioa entzungo duzu.

Entzungaia **behin** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

1. NORK zabaldu zuen Mutrikuko Akuakultura zentro berria?
 - a) Hezkuntza sailburuak, lehendakariaren izenean.
 - b) Lehendakariak, hezkuntza eta arrantza sailburuekin batera.
 - c) Mutrikuko alkateak eta lehendakariak.
2. ZER da akuakultura?
 - a) Itsasoaren balio unibertsala aztertzen duen zientzia.
 - b) Itsasoko arrain-motak babesteko ekimena.
 - c) Itsasoko izakiak hazteaz arduratzen den jakintza-arloa.
3. NOIZTIK ari dira Mutrikuko institutuan lan honetan?
 - a) Oraintsu zabaldu dute akuakultura ikasteko eskaintza.
 - b) Duela bost urte hasi ziren akuakultura ikasketak eskaintzen.
 - c) Beste ikastetxe batzuekin elkarlanean egin dute aurten eskaintza.
4. Proiektuak hiru zutabe ditu:
 - a) Teknikariak prestatu, arrainak hazi eta natura zaindu.
 - b) Teknikariak prestatu, dirua erakarri eta ikerketak aplikatu.
 - c) Arrantzaleei lagundu, dirua lortu eta arrainak ikertu.
5. NONGOAK dira ikasleak?
 - a) Bat izan ezik, bizkaitarrak dira denak.
 - b) Itsasbazterreko herrietakoak dira denak.
 - c) Ia denak itsasertzeko herrietakoak.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondorengo testua aurrekoaren jarraipena da. Akuakulturaz eta arrantzaz arituko dira hizketan.

Entzungaia **behin** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **✓** laukian, adibidean egiten den bezala, entzundakoa testuan esaten dena baldin bada.

0. *Akuakultura ez da oso ezaguna gure artean.*

1. *Haztegietakako arrainek lekua izan beharko lukete arrain freskoen ondoan.*

2. *Itsasoko arrainen ekoizpena gero eta txikiagoa da mundu osoan.*

3. *Azken 5 urteetan %5 handitu da itsasoko arrainen ekoizpena eta %95 akuakulturarena.*

4. *Arrainek muga dute, baina Euskal Herrian arraina jateko eskaria ez da handitu.*

5. *Akuakultura beharrezkoa da arrain eskasiagatik.*

6. *Japonian eta Finlandian kontsumitzen da arrain gehien.*

7. *Euskal Herria lehen herrialdea da munduan arrain kontsumoan.*

8. *Akuakulturak arrain kopuruak handitzeko aukera ematen du.*

9. *Espezieak babesteko ere lagungarria da akuakultura.*

10. *Itsas nekazaritzaz gehiago ikasteko aukera ematen du Mutrikuko institutuak.*

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

IRAKURMENA

1. TESTUA

Maider Ziaurrirek *Berria* egunkariaren Liburuak atalean idatzitako iritzi artikulu bat irakurriko duzu.

Irakurri testua eta aukeratu hurrengo orrian **laburpen egokia**. Idatzi laukian laburpen egokiaren **letra**.

LIBURUAK

Gauza txikien liburua

Gauza txiki eta benetakoei buruz aritzeko premia nabari zaio Pako Aristiri azken liburuetan, eta soiltasunik soilenetik idazten du, apaindura eta artificio handirik gabe. Izenburuan bertan sumatzen da idazlearen hautua: ez du bilatzen irudi edo hitz joko arranditsurik, ez istorio handirik, gauza txikietan ere bai baita lilurarik, haien edertasunari erreparatzen jakinez gero.

Irakurlearengana errazago iristeko modua ere bada, neurri batean, gauza txikiez idaztea. **Horretarako**, komunikazioan traba egiten duten hitz eta apaingarri guztiak kentzen ditu Aristik, mezua argi eta garbi ematea baita helburua. *Libreta horiko poemak* liburuko ildoaren segida da, nolabait, *Gauza txikien liburua*; gaiak, idaztankera, tonua... antzekoak dira bietan, baina azken lan honetan poemak ez ezik ipuinak eta bestelako narrazio labur batzuk ere sartu ditu.

Egia da Aristiren poemak ez direla oso lirikoak eta oso landuak, baina badute **zerbait**; errazak dira irakurtzeko, eta aise jabetzen da bat mezuaz. Hori da, gainera, garrantzitsuena; hartara, mezua ulertzen denbora galdu beharrean, hor esaten duenari buruz hausnartzen emango dugu denbora hori, eta begiak irekiko zaizkigu agian, zein gizartetan bizi garen konturatuko gara akaso, eta, beharbada,

une batez bada ere, **horretaz** pentsatuko dugu. Aristiren hitzetan ispilatua ikusiko dugu askotan geure burua, beharbada gauza txikiei buruz hitz egiten duelako, denok inoiz sentitu edo pentsatu ditugun gauza txiki horiek kontatzen dituelako. Azken batean, nahiz eta fikzioa ere badagoen, bere inguruaz eta bere buruaz hitz egiten du batez ere, eta, adibide ezin konkretuagoetatik abiatuz, sentimendu

unibertsalak azaltzen ditu; izan ere, geure burua denik eta gauzarik indibidualena dela uste dugun arren, denik eta gauzarik unibertsalena ere bada; eta, nonbait, Aristik badaki inoren konplizitatea lortzeko idazleak inplikatu egin behar duela, eta barrena ireki. Bere helburua ez da testu ederrak sortzea, zerbait transmititzea baizik. Funtsean, literatura tresna bat da Pako Aristirentzat, jendearengan irria, negarra, gorrotoa, berdin dio zer, baina erreakzioren bat eragiteko lanabesa. Horregatik, ihes egiten du

testu hutsaletatik eta ezer esaten ez duten kontakizun azalekoetatik, zenbaitetan polemika sortzaile, probokatzaile eta zirikatzaile izateraino.



'GAUZA TXIKIEN LIBURUA'

Egilea: Pako Aristi
Argitaletxea: Erein
Urtea: 2004

Maider Ziaurri
Berria, 05-03-15 (moldatua)

HADE

1. Egitekoa:

Hiru paragrafo horietatik aukeratu **laburpen** egokia eta idatzi **letra** beheko laukian.

- A. Gauza txikiak ditu gogoko liburuaren idazleak, egunero gertatzen zaizkigunak. Poesia erraza erabiltzen du irakurleari pentsarazteko, baina barruraino iristen den poesia da. Irakurlearengan sentipenak eragitea gustatzen zaio eta ez sentipen azalekoak, sakonak eta zirikatzen dutenak baizik.
- B. Gauza txikiak baina azalekoak ditu gogoko liburuko idazleak, poesia apaindua eta landua erabiltzen du, ispilu batean eder ikusten dena. Irakurtzeko lana eskatzen duen poesia mota da, baina aldi berean eguneroko anekdotak erabiltzen ditu.
- C. Gauza txikiak eta apainduraz hornituak kontatzen ditu idazleak liburuan. Hizkuntza landua eta irudimena erabiltzen ditu batez ere; ametsetako gertaerak. Literatura egitea testu ederrak sortzea dela erakutsi nahi du. Irakurlea lasai uzten du, hotz, baina liburuarekin gozatu egingo du.

Testuaren **laburpen** egokia

da.

2. Egitekoa:

Ondorengo **hitzen erreferentzia** testuan aurkitu behar duzu. Hitza testuan beltzez azpimarratua duzu.

Erreferentziak aurkitu eta beheko marretan **idatzi**, adibidean egiten den bezala. Testuko hitzak erabili behar dituzu.

0. Adibidea:

Zeri egiten dio erreferentzia **horretarako** hitzak (14. lerroan)?

Zertarako kentzen ditu apaingarri guztiak? Irakurlearengana errazago iristeko.

1. Zer da **zerbait** (31. lerroan)?

Poemek badute *zerbait*, zer? _____

2. Zer da **horretaz** (39. lerroan)?

Horretaz pentsatuko dugu, zertaz? _____

IRAKURMENA 2. TESTUA

Jabier Agirre sendagileak *Argia* aldizkarian artikulu bat idatzi du eguzkia hartzearen eraginaz.

Irakurri testua eta aukeratu erantzun zuzena. Idatzi aukeratutako **letra** beheko laukietan.

Osasuna
JABIER AGIRRE

Eguzkia hartzeak mendetasun fisikoa eragin omen dezake

(1.paragrafoa) **IPAR CAROLINAKO** Wake Forest unibertsitateko ikerlariek egin duten ikerketa baten arabera –bertako Dermatologia Elkartearen egunkarian argitaratua-, eguzkia hartzeak adikzio fisikoa eragin dezake. Zientzialari amerikarrek uste dute eguzkiaren izpi ultramoreak odolean substantzia kimikoak askatzen dituztela, eta gai horiek aldartea “bizitu” eta ongizate-sentsazioa ematen diotela pertsonari. Txostengileen arabera, eguzki-izpiek ematen duten ongizateak azalduko luke zergatik pertsona askok larruazaleko minbiziaren arriskuari muzin egin eta behar baino denbora gehiago ematen duten eguzkipean.

(2.paragrafoa) Ikerketak 16-34 urte bitarteko 140 pertsona aztertu zituen, astean bitan eguzkia hartzeko ohitura zutenak. Boluntario bakoitzak 15 minutuz eguzki izpi ultramoreak hartzen zituen aurrena, eta

ondoren, izpi ultramorerik gabeko eguzki-ohetan beste 15 minutuko saioa egiten zuen. Zientzialariek ez zieten esaten boluntarioei zein ohetan hartzen zituzten izpi ultramoreak. Eta egun batzuen ondotik, erabili nahi zituzten eguzki-ohetak beraiek aukeratzeko eskatu zieten boluntarioei: %94ek izpi ultramoreak igortzen zituzten oheak aukeratu zituzten, “haietan hobeto sentitzen zirelako, eta erlaxatzen laguntzen zirelako”.

(3.paragrafoa) Ikertzaileek sumatu zuten beltzarantzearekin batera, gorputzak endorfinak askatzen dituela odol-korrontean. Endorfina horiek berak dira ariketa fisiko gogorreko saio baten

ondotik izaten den ongizate-sentsazioa eragiten duten substantziak. Eguzkia sarri hartzen duten pertsonak, beraz, endorfinen eragindako gogobetetasun-sentimendu horrekiko adikzioa edo mendetasuna garatzea bide horretatik ulertu behar da.



HADE

1. Egitekoa:

1. Artikuluak ohartarazi nahi du...
 - a) eguzkia hartzea arriskutsua dela izpi ultramoreengatik.
 - b) eguzkia hartzea ona dela, neurritz hartuta.
 - c) eguzkia sarri hartuta, lotura eragin dezakeela.

2. Ikerketak frogatu du:
 - a) odoleko gai kimiko batzuk direla asebetetzea eragiten dutenak.
 - b) eguzkiaren izpi ultramoreen eraginik ez zutela izan boluntarioek.
 - c) asebetetze-sentsazioak ez duela zerikusirik eguzkiaren izpi ultramoreekin.

3. Endorfinaren eraginez,
 - a) odola arinago eta garbiago dabil.
 - b) norbera hobeto sentitzen da.
 - c) mendetasuna senda daiteke.

4. Ikerketaren amaieran,
 - a) boluntario gehienek izpi ultramoreak zituzten oheak aukeratu zituzten.
 - b) ia boluntario denek izpi ultramorerik gabeko oheak aukeratu zituzten.
 - c) boluntarioen erdiek izpi ultramoreak zituzten oheak aukeratu zituzten eta beste erdiek gabeak.

5. Artikuluak dio ariketa fisikoa egitea...
 - a) eguzkia hartzea bezain garrantzitsua dela osasuntsu bizitzeko.
 - b) eta eguzkia hartzea, arrazoi beragatik, mendetasuna eragiteko gai direla.
 - c) eguzkia hartzea baino hobea dela endorfina gehiago askatzeko.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

IRAKURMENA

3. TESTUA

Xabier Etxanizek *Berria* egunkarian iritzi artikulu bat idatzi du.

1. Egitekoa:

Irakurri testua eta alboan dituzun testuetatik aukeratu **idazlearen jarrera** ongi adierazten duena. Idatzi aukeratu duzun **letra** beheko laukian.

MARATILA!

XABIER ETXANIZ ROJO

Erretzen baduzu, ez gidatu

Espainiako Barne Ministerioa debeku berri bat jartzea aztertzen ari omen da. Antza denez, gidari erretzaileak ezin izango du zigarrorik erre autoa gidatzen duen bitartean. Debeku honen bidez erretzeak sortu ohi dituen distrakzio uneak ekidin nahi dituzte. Niri, egia esan, ideia bikaina iruditu zait eta zinez estimatzen dut gure osasunarekiko barne ministroak agertzen duen kezka.

(2.paragrafoa) Ideia bikaina izanik ere, nago ez ote diren motz geratu eta horrexegatik hainbat proposamen helarazi nahi dizkiet ministroaren laguntzaileei, ea denon artean trafiko istripuen arazoa behingoz konpontzen dugun.

(3.paragrafoa) Lehenik eta behin, nik minigonak debekatuko nituzke, hiribarruetan besterik ez bada ere. Abiadura dela-eta debeku honek ez luke zentzurik ez autobideetan ez eta autopistetan ere. Era berean, genero diskriminazioa baztertze aldera, nirea bezalako bizkar eta ipurtalde sendo eta dotoreak ere debekatuko nituzke.

(4.paragrafoa) Bidaiari kopuruaren inguruan badago zer arautu. Jendez beteriko autoetan elkarrizketa bat baino gehiago izateko aukera handiegia da. Eta frogatuta dago –ministroa nirekin bat etorriko da ziurrenik- gizakia ez dagoela prestaturik maila bereko bi ekintza batera gauzatzeko. Beraz, auto bakoitzean lagun bat baino ez, gidaria alegia. Era horretan ez du inorekin hitz egiteko aukerarik izango eta ez du distrakziorik izango.

(5.paragrafoa) Beste proposamen interesgarri batzuk geratu zaizkit hautsontzian... barkatu, tintontzian...



*Zein da artikulu honetan idazlearen **jarrera**?*

- A) *Tabakoaren kontrako arau guztiek dituzte gauza onak eta txarrak eta hori frogatzeko arrazoiak ematen ditu.*
- B) *Zentzuzkoa iruditzen zaio Ministerioaren debekua, baina arau gehiago proposatzen ditu, denon artean trafiko istripuen arazoa behingoz konpontzeko.*
- C) *Ministerioan aztertzen ari diren arauaren gehiegikeria ikusita, bide beretik egiten ditu idazleak bere proposamenak.*
- D) *Arau berria ez zaio zentzuzkoa iruditzen, baina bere proposamenak zentzuzkoak dira.*

Aukera ezazu erantzun zuzena eta idatzi letra ondorengo laukian:

Berria, 2005eko Otsailaren 17a

HADE

2. Egitekoa:

Testuan hitza aurkitu.

Ondoren 2 azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu. Testuan aurkituko duzun hitza idatzi horretarako duzun lekuan, adibidean egiten den bezala.

Adibidea:

0. (1. paragrafoan)

Saihestu, ihes egin.

ekidin

1. (3. paragrafoan)

Giza enberraren behe eta atzeko aldea.

2. (1. paragrafoan)

Eskertu, aintzakotzat hartu, ongi hartu.

HADE

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra garbia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

Egitekoa:

Bankuko/kutxako zuzendariari gutuna idatzi.

Honako albistea irakurri duzu egunkarian:

Euskadiko Kutxako 1.000 kreditu txarteletik gora kopiatu dituzte faltsutzaile batzuek

Bankuko ordain-agiria etxera iritsi, eta gastu oso bitxiak aurkitu dituzu.

Ohartu zara txartelen iruzur horretako kaltetuetako bat zarela.

Oso kezkatuta zaude, eta haserre. Zer gertatuko ote da kendu dizuten diruarekin?

Azaldu, besteak beste, zer gertatu zaizun, emandako urratsak, xehetasunak eman, gertaera salatu, argibideak, erantzukizuna eta konponbidea eskatu...



Zirriborroetarako orria

Azken berriak: hainbat mila kreditu txartel faltsu dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako kutxatzailetan; ezabatuak diren erabiltzaileen elkartek oso kezkatuta daude

BIGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu beharko dituzu eta 30 proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamenean.

Agiria eskuratzeko bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izan beharko zara. Emaidza bakarra emango zaizu: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.

Eskatu zaizun egitekoa gainditzeko ezinbestean gutxieneko bat lortu behar duzu, gaitasun komunikatiboa osatzen duten azpigaitasun bakoitzean (gaitasun soziopragmatikoa, estrategikoa, linguistikoa eta testuala) edo ebaluazio irizpide bakoitzean.